



SHOSTAKOVICH

AURKIBIDEA

1. EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN MUSIKA GELA	3.orrialdea
2. KONTAKTUA	3.orrialdea
3. SARRERA	3.orrialdea
4. FITXA TEKNIKOA	4.orrialdea
5. FITXA ARTISTIKOA	4.orrialdea
6. HELBURUAK	5.orrialdea
7. EGITARAUA	6.orrialdea
8. JARDUERA MODU EGOKIAN GAUZATZEKO AHOLKUAK	6.orrialdea
9. JARDUERA DIDAKTIKOEN GIDA PRAKTIKOA	7.orrialdea
9.1. Lehen Jarduera	7.orrialdea
9.2. Bigarren Jarduera	7.orrialdea
9.3. Hirugarren Jarduera	8.orrialdea
9.4. Laugarren Jarduera	8.orrialdea
9.5. Bostgarren Jarduera	9.orrialdea
9.6. Seigarren jarduera	9.orrialdea
9.7. Zazpigarren jarduera	10.orrialdea
9.8. Zortzigarren jarduera	10.orrialdea
10. ERANSKINAK	11.orrialdea
10.1. Entzunaldi aktiboak egiteko taulak	11.orrialdea

GIDA DIDAKTIKOA

1.- EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN MUSIKA GELA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta gure herriko hezkuntza-eragile guztien arteko harreman egonkor bat sortzea da gure Hezkuntza Departamentuaren helburu nagusienetako bat. Aipatu harremana 2007an hasi zen, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren 25. Urteurrenaren harira “Tempo di Martxa!” ekimena martxan jarri zenean: musika-gela ibiltari batek eskola ugaria joan eta Lehen Hezkuntzako 20.000 haur baino gehiagoren bisita jaso zuen.

2.- KONTAKTUA

KONTAKTUA/CONTACTO	
MIKEL CAÑADA	Miramón Pasealekua, 124
mcanada@euskadikoorkestra.eus	20014 Donostia / San Sebastián
Telefonoa: 943 01 32 32 – 688 636 943	http://www.euskadikoorkestra.eus

3.- SARRERA

Gure zuzendari titular den Robert Treviño-ren helburu pedagogikoari jarraituz, aurten Shostakovich-en 5.Sinfonia gerturatuko diogu bigarren hezkuntzako ikaslekoari. Zuzendariaren ustetan ezinbestekoa da musika klasikoaren eta nerabeen artean zubiak eta loturak eratzea eta horretarako horrenbeste eztabaida sortarazi duen Shostakovich-en 5. Sinfonia aukeratu du. Treviño bera jarriko da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren buruan, eta Sinfonia honi buruz duen iritzia azalduko die. Shostakovich-ek aurreko lanekin jaso zituen kritika zorrotzei bere “erantzun sortzailea” zela esan zuen, ez omen baitziren egokiak “errealismo sozialista” zeritzonaren eredu estetikoentzat. Baina antza denez, bere lan askotan gertatu zen bezalaxe, egileak zeharka bere mezua bidali zuen.

4.- FITXA TEKNIKOIA

FITXA TEKNIKOIA

Kontzertuaren izenburua: Shostakovich

Saioaren ordua: Saio bakarra 11:00etan

Eguna: 2018ko otsailaren 16an

Tokia: Kursaal Antzokian

Iraupena: 60 minutu

Zein publikoari zuzendua: Bigarren Hezkuntzako Ikaslegoari

Aforoa: 1400

5.- FITXA ARTISTIKOIA

FITXA ARTISTIKOIA

Interpretatzaileak:

- Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

Zuzendaria:

- Robert Treviño

Aurkezlea:

- Elixabete Arabaolaza

Idea eta Gidoia:

- Robert Treviño eta Mikel Cañada

Gida didaktikoa:

- Ana Eguiazabal

6.- JARDUERAREN HELBURUAK

JARDUERAREN HELBURUAK

- Musika-adierazpen artistikoa ezagutzea eta baloratzea.
- Sortzeko eta pentsatzeko gaitasuna garatzea.
- Sentimendua, zentzua eta sentsibilitatea garatzea.
- Baloreetan hezteak, musikaren bidez.
- Pertzepzio-mailen garapen fisikoa sustatzea.
- Soinuaren aukeretan murgiltzea eta sakontzea.
- Musika eta bere lengoaiaren edo mezuaren eta ingurunearen arteko lotura bilatzea.
- Entzutea eta parte hartzeko nahia sustatzea.
- Entzuteko modu apropos eta arduratsu bat garatzea.
- Konpositoreak eta hauen bizitzaren errealitatea ikasleengana gerturatzea.
- Shostakovich konpositorea gertuagotik ezagutzea, bere kontestuaren gogortasuna ezagutzea eta horrek musika konposatzeko garaian nola eragin zuen ikustea.
- 5. Sinfonia konposatu zeneko kontestu historikoa ezagutzea eta honek musikaren izaeran izan zuen eraginaren inguruan hausnarketa egitea.
- Musika eta beste arte guztiak kontestu historikoarekin lotuta daudenaz jabetzea.
- Historiaren aro desberdinetan musika iritziak eta kritikak adierazteko baliabide bezala erabilia izan dela ezagutzea.
- Lehenago entzundako obrak entzutean ezagutzeko gaitasuna garatzea.
- Espresio artistikoa gauzatzeko nahia sustatzea.
- Oinarrizko mailan musika karaktere desberdinak sentimendu, egoera eta bizipen ohikoekin erlazionatzeko gai izatea.

7.-EGITARUA

EGITARUA	
<p>1. 5. Sinfonia</p> <p><i>I. Moderato</i> <i>II. Allegretto</i> <i>III. Largo</i> <i>IV. Allegro non troppo</i></p>	<p>Dmitri SHOSTAKOVICH</p>

8.- JARDUERA MODU EGOKIAN GAUZATZEKO AHOLKUAK

JARDUERA MODU EGOKIAN GAUZATZEKO AHOLKUAK
<p>-Ikasle asko etorriko direnez saio bakoitzera, aretora 20 minutu lehenago etortzea eskatzen dugu, ikasleak lasaitasunez eser ditzagun, nahi duenak komunera joateko aukera izan dezan, etab. Puntualtasuna erabat beharrezkoa dugu.</p> <p>-Ikasleak kokatzeko garaian, aretoko laguntzaileen eta EOS-eko langileen argibideak jarrai ditzazuela eskatzen dizuegu. Ikasle guztiak ondo kokatzeko erabat beharrezkoa da eskola bakoitzaren txanda errespetatzea eta argibideak jarraitzea.</p> <p>-Ezinbesteko kasuetan salbu, kontzertua hasi eta gero aretotik ez dutela irteterik izango jakinarazi eta ulertaraziko zaie ikasleei.</p> <p>-Ikasgelan edo zineman bezalaxe gure aretoan ez dagoela jaterik edo edaterik ulertaraziko zaie ikasleei. Halaber, aretoko instalazioak zaindu behar direla ere ulertaraziko zaie.</p> <p>-Bertaratuek jardueraz gozatzeko aukera izan dezaten, ahal den neurrian isilik egon beharko dutela ulertaraziko zaie ikasleei.</p> <p>-Aurreko urtetako egoerak ikusirik gomendagarria iruditzen zaigu irakasleak ikasleen artean banatuta egotea jarrera egokia mantendu dezaten.</p>

9.- JARDUERA DIDAKTIKOEN GIDA PRAKTIKOA

9.1.-Lehen Jarduera

JARDUERA	SHOSTAKOVICH KONPOSITOREA EZAGUTU
Helburua	Konpositorea, bere bizitza, bere kontestu historikoa gertuagotik ezagutzea bere obrak hobe ulertzeko.
Gauzatzeko modua	Banaka, binaka edo taldeka konpositoreari buruzko ikerketa lan txiki bat egitea. Ondoren gelaren aurrean lana azaldu eta komentatu egingo da.
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Gehiago sakondu nahi ezkerro ikasle edo talde bakoitza alderdi batekin bakarrik zentratu daiteke horrela klase osoaren bitartez informazio osoa jasotzeko. - Lan erakargarri edo bisualago bat egiteko mural baten antzerakoa egin daiteke konpositorearen inguruan landutako datu guztiak horma irudi batean bateratuz. - Teknologia berriak erabili nahi izanez gero eta beste ikasgai batzuetan lantzen dena ere aprobeztatzeko blog bat egin daiteke konpositorearen inguruan egunetik egunera ikertzen dutenarekin sarrera desberdinak eginez.

9.2.-Bigarren Jarduera

JARDUERA	SHOSTAKOVICH-EN 5.SINFONIAREN KONTESTUA EZAGUTU
Helburua	Shostakovich-en 5. Sinfoniaren kontestu historikoa ezagutu, honen inguruan konpositorearen egoera eta ikuspegia aztertu, gainontzeko musikari eta kritikoen iritzia aztertu eta hori eta gero bakoitzaren iritzia garatu.
Gauzatzeko modua	<p>5. Sinfoniaren kontestu historikoa oso konplexua da. Ekintza konkretu baterako konposatua, momentu horretan Shostakovich-en egoera konplikatua zen. Bere hitzetan intentzioa bat zen, gerora bere memoriak idatzi zituen idazlearen hitzetan ezkutuko intentzio bat ere bazegoen, beste musikari batzuek dioten bezalaxe.</p> <p>Shostakovich-ek erregimenaren arauak jarraitu behar zituen nahitaez, baina antza denez mezu ezkutua bidaltzeko aprobeztatzen zuen bere obretan. Honi buruz ikasleek ikerketa lantxo bat egin dezaten proposatzen dizuegu.</p>
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera hau ere banaka, binaka edo taldeka egin daiteke. - Interesgarria litzateke taula konparatibo bat egitea sinfoniaren egitasmoari buruzko iritzi desberdinekin (konpositorearen helburua, erregimenaren intentzioa, ondorengo kritikoen iritzia, eta norberarena behin Shostakovich-en bizitza gertuagotik ezagututa) - Behin klase edo bakarkako iritzia osatuta dagoenean interesgarria litzateke ere sinfoniaren hainbat zati entzutea eta musikalki hori adierazten den edo ez hausnartzea.

9.3.-Hirugarren Jarduera

JARDUERA	MUSIKA ETA IRUDIAK KONBINATU
Helburua	5. Sinfonia 1917ko matxinadaren urteurrena ospatzeko egin zenez, matxinada hau hobe ezagutzea eta musikari irudiak jartzea.
Gauzatzeko modua	<p>Lehenik eta behin garrantzizkoa litzateke 1917ko matxinadaren jatorria eta gertakarien sekuentziak eta ondorioak ezagutzea. Matxinadaren kontestu historikoa ezagutzea aktiboki edo pasiboki egin daiteke; hau da, irakasleak kontatu dezake edo ikasleek aurreko jardueratan bezala, beren kabuz bilatu dezakete.</p> <p>Hori egin eta gero Shostakovich-en 5. Sinfoniaren mugimendu bat aukeratu eta matxinadaren irudiekin konbinatu egingo dute programa informatikoen bidez.</p> <p>Behin lana bukatutakoan klasean ikusi egingo da eta ikasleek irudien aukeraketaren zergatia azalduko dute.</p>
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrekoetan bezala bakarka edo talde txikietan egin daitekeen jarduera da. - Irudiak ezartzeko garaian oinarrizko maila batean komenigarria edo interesgarria litzateke sekuentzia musikalak edo erritmoa kontutan izaten saiatzea. - Oso aberasgarria litzateke ere irudiak aukeratzeko garaian ezaugari historikoak kontutan izateaz gain musikak iradokitzen dizkien sentrazioetan oinarritzea.

9.4.- Laugarren Jarduera

JARDUERA	MUSIKAREN IZAERA
Helburua	Musikak sortzen dituen sentrazioak nola lortzen diren oinarrizko maila batean aztertzea eta horri buruz hausnartzea.
Gauzatzeko modua	<p>Irakasleak sinfoniaren pasarte bat aukeratuko du eta klaseari ipiniko dio. Ikasleek pasarte horrek sortutako sentrazioak aipatuko dituzte.</p> <p>Behin sentrazio horiek identifikatutakoan eta adostutakoan, jardueraren bigarren zati honetan, konpositoreak sentrazio horiek sortzeko zein elementu musikal erabili dituen identifikatzen saiatuko dira.</p>
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat momentutan sentrazioak sortzen dituzten elementu musikalak identifikatzea ez da erraza izango, horretarako lagungarria izango litzateke irakasleak zein alderditan fijatzea aipatzea (instrumentazioa, intentsitatea, tesitura, erritmoa...) - Musikaren hainbat alderdi aztertzerakoan sortu daitezkeen iritziak oso desberdinak izan daitezke, arrazoituak badira guztiak kontutan hartzea gomendatzen dugu, ikasleek musikaren inguruko interpretazioa zuzena edo okerra ez dela ikus dezaten.

9.5.- Bostgarren Jarduera

JARDUERA	ORKESTRA PLANTILA
Helburua	Orkestra plantila honetako instrumentuak identifikatzea eta hortik abiatuta orkestraren plantilaren bilakaeraren azterkerta egitea historian zehar.
Gauzatzeko modua	<p>Sinfonia honetan plantila oso zabala da, pianoa, zelesta, harpa barruan daudelarik. Garai honetan jada erabiliagoak, baina orkestra sortu zenean erabiltzen ez zirenak.</p> <p>Lehen mugimendua entzuten duten bitartean ikasleek zein instrumentu entzuten dituzten apuntatuko dute.</p> <p>Behin mugimendua entzundakoan ikasle guztien artean adostu egingo dira instrumentu horiek zeintzuk diren.</p> <p>Jardueraren bigarren zati batean orkestran instrumentu horiek betidantik egon diren edo ez aztertu egingo da. Horrela orkestra sinfonikoaren ibilbidea era sinple batean aztertuz.</p>
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Zenbait instrumenturen presentzia antzematea beharbada ez da hain erraza izango, horrela balitz nahi bada beste mugimenduren bat entzun daiteke, edo irakasleak bertan dagoela aipatu dezake. - Jardueraren bigarren zatia aukerazkoa da, baina orkestraren garatze prozesua lantzeko egokia izan daiteke. Astuna izan ez dadin lan hau taldeka egin daiteke, talde bakoitzari orkestraren garai bat egokituz.

9.6.- Seigarren Jarduera

JARDUERA	ENTZUNALDI AKTIBOA
Helburua	Elementu musikalak bereiztea
Gauzatzeko modua	Eranskinetako taula erabiliz edo irakasleei aipagarri iruditzen zaizuen beste elementuak aztertuz entzunaldi aktiboa egin, ikasleen adimena entrenatuz.
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Beharbada ikasleek baiezko kasilan gurutzea benetan entzun gabe edo nabarmendu gabe markatzen dute. Egiatan antzeman dutela konprobatzeko bigarren entzunaldi bat egin daiteke eta ikasleek aipatutako elementuak entzuten dituztenean adierazi egin beharko dute. - Sinfonia osoarekin entzunaldi aktiboa egitea luzeegia balitz mugimenduren batekin soilik ere egin daiteke. - Jarduera errazteko musikan kronologikoki azaltzen diren bezala azaltzen dira taulan ere.

9.7.- Zazpigarren Jarduera

JARDUERA	SINFONIAREN GAI NAGUSIAK IDENTIFIKATU
Helburua	Sinfonian identifikatzeko errazak diren eta behin eta berriz errepikatzen diren gai nagusiak ezagutzea, sinfonian zehar, nahiz eta eraldatuak izan, azaltzen direnean antzematea eta gelako instrumentuekin edo abestuz interpretatzeko gai izatea.
Gauzatzeko modua	Sinfoniaren entzunaldi aktibo bat egin eta hainbat gai aukeratu, nabarmenenak iruditzen zaizkienak. Behin horiek aukeratutakoan ikasleek abestu egingo dituzte eta ahal bada gelako instrumentuekin interpretatuko dituzte. Bigarren entzunaldian gaia azaltzen den bakoitzean identifikatuko dute.
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Beharbada lehen, bigarren eta laugarren mugimenduak erabiltzea litzateke errezena. - Irakaslearen laguntzaz eta ikasleen ezagupenen arabera partitura batean ere txertatu ditzazkegu eta horiek horma irudi batean ipini gero instrumentuekin errezago interpretatu ahal izateko eta bigarren entzunaldian antzeman ahal izateko. - Melodiek egiteaz aparte hainbat akonpainamendu ere nahiko errepikakorrak dira erritmikoki, horiek ere azertu daitezke errepikatzen diren edo ez eta konpositorearen tratamendua ikusteko.

9.8.- Zortzigarren Jarduera

JARDUERA	MUSIKA MEZU DESBERDINAK BIDALTZEKO ETA KRITIKA EGITEKO BALIABIDE BEZALA
Helburua	Artea oro har eta kasu honetan musika historiako une askotan mezu desberdinak bidaltzeko eta kritikak egiteko erabilia izan dela ikustea.
Gauzatzeko modua	Historian zehar musika testuarekin edo testurik gabe kritika egiteko, mezuak bidaltzeko edo ezkutuko protestak egiteko erabilia izan da. Ikasleek, taldeetan banaturik, gai baten inguruan kexa, protesta edo mezua bidali duten piezen bilaketa bat egin beharko dute eta gero klasearen aurrean azaldu beharko dute eta hausnarketa egingo dute.
Iradokizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Errazagoa izateko irakasleak gaiak proposatu ditzake (gerraren inguruan salaketa egin duten piezak, hondamendien omenez egin diren piezak, kritika soziala egin duten piezak...) - Aberasgarriagoa izateko garai desberdinetako piezak aukeratu ditzaten eska dezake irakasleak, gaur egungo egoera eta historiako momentu desberdinen arteko lotura ikus dezaten.

10.- ERANSKINAK

10.1.- Entzunaldi aktiboa egiteko taulak

1go mugimendua, dramatikoa: Zorigaitz Heroikoa

Lehen mugimendu hau kontraesan bat da, militarrek borrokarako adorea irudikatzen zuela interpretatzen zuten; horren azpian aldiz heriotzak sortutako atsekabea eta tristura izkutatzen ziren.

	BAI	EZ
Sokak interpretatutako gaia, galdera erantzun moduan edo kanon moduan azaltzen da.		
Biolinei lagunduz sokak erritmo egonkor bat azaltzen du		
Pianoa agertzen da sokazko instrumentuekin perkusio moduan, haize metalarekin batera.		
Hainbat momentutan erritmo errepikatu batek mailu mekaniko baten itxuran kolpeak ematen ari dela dirudi.		
Erritmoak azkartu egiten dira uneoro		
Kutsu militarra duen martxan bilakatu da mugimendua		
Hasierako gaia azkartuta azaltzen da		
Momenturik bortitzena metalen transizioaren bitartez lehen azaldutako beste gai batean bilakatzen da.		
Koda edo bukaera liriko eta lasaia, ezer gertatu ez dela irudikatzen duena.		
Azkenean kutsu tentsoa berriz ere hasierako tema berdina erabiliz.		

2.Mugimendua, alaia: Scherzo. Bizitzeko alaitasunaren espresioa

Bere garaiko jendearen konformismoaren eta ikusmira urriaren inguruko satira bat Bere musika zentsuratzen zutenek ez ziren azpiko mezu hori antzemateko gai izaten.

	BAI	EZ
Gai alaia, dantza modukoa		
Landa kutsua duen dantza		
Bibolin eta harparako baltsa		
Sokazkoen glissandoak		
Haizezko instrumentuek sokazko instrumentuen glissandoak imitatzen dituzte.		
Dantza berriz ere		

Shostakovich

3. Muqimendua, intimoa: Largo. Atsedeen denbora.

Barne mundura erretiroa. Gai nagusia pixkanaka hiltzen dijoa. Instrospekzioa.

	BAI	EZ
Gai musikal lirikoa eta gogoetara bultzatzen duena		
Sokaren gaiaren amaiera eta hurrengoaren hasiera harpak markatzen du		
Flautaren eta Harparen gaia, ameslari kutsu batekin		
Musika gogortuz, intentsoago bilakatuz dijoa		
Sokaren tremolo urduriaz lagunduta oboearen doinu bakartia eta mingarria azaltzen da.		
Klarineteak erreleboa hartzen dio		
Sokak lasaitasun gai bat azaltzen du		
Berriz ere flauten gaia		
Tentsioa areagotuz dijoa, tremolo bat etengabe mantentzen delarik instrumentu desberdinetan eta interbentzioak instrumentu desberdinekin tartekatuz dijoazen bitartean.		
Biolontxeloaren bitartez hasierako egoera eta sentipenera bueltatzen da musika		
Berriz ere hasierako gai lirikoa eta bukaera		

4. Azken muqimendua: Izaera gerrazalea

Garaipen kutsua du bat batean dena bertan behera geratzen den arte. Bukaera negatiboa da eta saminez betea dago.

	BAI	EZ
Garaipen gai nagusia lehenengo tronpetan eta gero tronpan		
Garaipen gai nagusia orain tronboian		
Tenpoa azkartzen da, nahasmena eta noten anabasa		
Anabasaren gainetik tronpeten eta tronpen deialdiak		
Xilofonoaren erritmo bortitza		
Sokaren gai lirikoa metalen interbentzio gogorarekin		
Tronparen gai lirikoa bibolinen akonpainamendu errepikakorrak lagunduta		
Sokazko instrumentuen pasarteak		
Haize egurren pasarteak		
Biolontxeloek hasitako eta tronpek jarraitutako gai tentsioa		
Danbor hotsekin hasierako gaia bueltatzen da haize egurrean		
Danbor erredoblea eta tinbalaren erritmoa haize metalari lagunduz		
Bukaerako ereserki itxurako metalen gaia		